Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Megi Khaburdzania

Gasteiz, Araba (1970)



Aurkibidea

Biografia



Georgiarra da, musikaria. 23 urte daramatza Gasteizen. Musikak ekarri zuen Gasteizera: emanaldi bat izan zuten. Gasteiz gustatu egin zitzaion, eta bi lagunekin bueltatu zen. Hirurak bertan geratu ziren bizitzen. IKA euskaltegian ikasi du euskara. Elkarrizketa egin genionean 12. urratsean zegoen.

Zintak

GAS-007

- **Proiektua**: Gasteizko Euskararen Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2015-06-16
- **Iraupena**: 31 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Odria, Haizea

Pasarteak

1. Orkestrarekin Gasteizera etorri eta bertan bizitzen gelditu zen

- **Erref**: GAS-007/002
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:00:28. **Bukatu**: 00:02:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Georgian jaio zen. Musikaria da eta bere hiriko orkestrarekin etorri zen Gasteizera lehen aldiz gaztetxoa zenean. Bertan gelditu zen bizitzen beste bi lagunekin.

2. Beti nahi izan du euskara ikasi

- **Erref**: GAS-007/003
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:02:21. **Bukatu**: 00:03:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:
Georgian aitzinean euskaldunekin harremana egon zenaren ustea dago eta horregatik han badute euskararen berri. Megik beti nahi izan zuen ikasi.

3. Euskaltegian euskara ikasten hasi zen

- **Erref**: GAS-007/004
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:03:43. **Bukatu**: 00:05:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:
Musika irakaslea da eta biolina jotzen du. Denboraldi batean Mikel Urdangarinekin lan egin zuen eta haren "euskara gozoak" gehiago piztu zion Megiri hizkuntza ikasteko gogoa. Ika euskaltegian hasi zen.

4. Euskara eta georgieraren antzekotasunak

- **Erref**: GAS-007/005
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:05:25. **Bukatu**: 00:07:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:
Ika euskaltegian hasi zen. Hasieran ez zitzaion zaila egin, georgierarekin dituen antzekotasunengatik. Gramatika aldetik antzekoak dira eta hitz batzuek ere berdin idazten dira, nahiz eta esanahi desberdina izan. Gogoz hartu zuen eta esfortzu handia egiten zuen.

5. Euskara praktikatzeko zailtasunak

- **Erref**: GAS-007/006
- **Iraupena**: 0:02:51. **Hasi**: 00:07:41. **Bukatu**: 00:10:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Hasieran ez zitzaion euskara oso zaila iruditu. Baina mintzamenean oraindik arazoak ditu, batez ere bere inguruan ezin duelako praktikan jarri. Dakitenei eskatzen die berari euskaraz egiteko. Euskaltegiko lagun batzuek oraindik ere mantentzen ditu eta mintzalagun programan ere badabil.

6. Georgia eta Euskal Herria: hizkuntza babesten saiatzen diren herrialde txikiak

- **Erref**: GAS-007/007
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:10:32. **Bukatu**: 00:12:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:
Euskal Herriko egoera Georgiakoarekin lotzen du beti: beren hizkuntza babesten saiatzen diren herrialde txikiak dira biak. Izugarri gustatzen zaio euskara. Oso hizkuntza logikoa iruditzen zaio.

7. Gasteizen euskaraz bizi al daiteke?

- **Erref**: GAS-007/009

- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:12:14. **Bukatu**: 00:14:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Gasteizen badaude euskaraz bizi diren zirkuluak. Bere seme-alabek, adibidez, euskaraz ikasten dute eta ikasleen guraso asko ere euskaraz bizi dira. Berak ez dauka kalean praktikatzeko aukera askorik. Oraindik lotsa ematen dio baina ahalegina egiten du.

8. Euskara ikastea garestia da

- **Erref**: GAS-007/014
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:18:26. **Bukatu**: 00:19:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:
Lehen berak ere euskara ikastea garestia zela uste zuen. Ez zuen ulertzen bultzatu nahi den hizkuntza bat ikasteko ordaindu beharra.

9. Gasteizko euskararen egoera gaur egun

- **Erref**: GAS-007/016
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:20:35. **Bukatu**: 00:22:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Bera Gasteizera iritsi zenetik gaur egunera nabaritu du garapen bat euskararen egoeran. Euskadi osotik kontzertuak ematen ibili izan da eta orokorrean Gasteizen baino euskaldun gehiago ikusi du beste leku batzuetan. Hala ere, azken urteetan nabari du aldaketa.

10. Mikel Urdangarinekin izandako anekdota

- **Erref**: GAS-007/018
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:25:26. **Bukatu**: 00:27:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Mikel Urdangarinekin lanean ziharduela izandako anekdota. Abestien letrak buruz ikasi zituen, baina ez zekien ondo nola idazten ziren.

11. Euskararen kontrako eta aldeko jarrerak

- **Erref**: GAS-007/019
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:27:45. **Bukatu**: 00:29:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Lanerako behar dutela eta euskara derrigorrez ikasi behar izan duen jendearen partetik entzun izan ditu kontrako jarrerak. Euskararen aldeko jarrera duen jendea badu inguruan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-31

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com